c) Lan-ordutegitik kanpo egindako hartzeko ekintzetan, aldiz, egotzi beharreko kostua 300,00 eurokoa izango da txakur bakoitzeko.

- Hartzeko kostuei 240,00 euroko prezioa gehituko zaie txakur bakoitzeko behin baino ez, txakurrak ABZn duen egonaldia alde batera utzita, hartutako txakurrak zaintzeko eta mantentzeko kontzeptupean.

Prezio horiek urtero eguneratuko dira, estatuko urte arteko KPIren bilakaeraren arabera.

**Laugarrena.- Indarraldia.**

1.- Hitzarmen hau sinatzen den egunean bertan sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da 20.........(e)ko abenduaren 31ra arte.

2.- Hitzarmena urtero luzatuko da, bi aldeen isileko erabakiaren bidez, eta gehienez lau urteko iraupena izango du, lehenengoa barne.

3.- Hitzarmena aldi baterako eten ahalko da, ohiz kanpoko honako egoera hauek daudenean: ABZ beteta dagoenean, baldintza epizootikoak daudenean edo antzeko zirkunstantziak daudenean.

4.- Luzapena badago, hitzarmenaren indarraldia Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak hitzartutako ABZ egotearen baldintzapean egongo da.

**Bosgarrena.- Izaera juridikoa.**

Hitzarmen honek administrazio izaera du. Hori dela eta, haren edukia interpretatzea eta horretatik ondorioztatzen diren kontuak jakitea eta ebaztea administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoei dagokie, jurisdikzio hori arautzen duen araudiaren arabera.

Eta ados daudela adierazteko, esku hartzen duten aldeek hitzarmenaren bi ale sinatu dituzte, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.

Nekazaritza Saileko foru diputatua.– FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS………………..........................……………………….

...................................……………………(e)ko Udaleko alkatea

c) En la recogida realizada fuera del horario laboral, el coste imputable será de 300,00 euro/perro.

- A los costes de recogida se añadirán 240,00 euro/perro una sola vez independientemente del periodo de estancia del perro en el CPA, en concepto de coste por custodia y mantenimiento de los perros recogidos.

Esos precios se actualizarán anualmente, en función de la evolución del IPC interanual estatal.

**Cuarta.- Vigencia.**

1.- El presente Convenio, que entrará en vigor el día de su firma, extiende su vigencia hasta el 31 de diciembre de 20…......................

2.- El Convenio se prorrogará anualmente, por acuerdo tácito de ambas partes, hasta un máximo de cuatro años en total, incluido el inicial.

3.- El Convenio podrá ser suspendido temporalmente en las situaciones excepcionales de saturación del CPA, condiciones epizoóticas o circunstancias similares.

4.-En caso de prórroga, la vigencia de este convenio, estará condicionada a la existencia de CPA concertado por el Departamento de Agricultura de la Diputación Foral de Álava.

**Quinta.- Naturaleza jurídica.**

El presente Convenio tiene naturaleza administrativa, por lo que corresponde la interpretación de su contenido y el conocimiento y resolución de las cuestiones de él derivadas y a los Órganos de la jurisdicción contencioso administrativa conforme a la normativa que regula la citada jurisdicción.

Y en prueba de conformidad, las partes intervinientes firman por duplicado ejemplar el presente Convenio de Colaboración, en el lugar y fecha arriba indicados

Diputado foral de Agricultura.– FRANCISCO DE BORJA MONJE FRÍAS……..................................................................................

Alcalde/sa del Ayuntamiento de………….....................................

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**4288**

**Diputatuen Kontseiluaren 28/2013 FORU DEKRETUA, abuztuaren 1ekoa, ondoko dokumentazio kartografikoa saltzeko prezio publikoa ezartzen duena: Arabako Lurralde Historikoko 1:150.000 erliebe mapa.**

Azaroaren 20ko 64/1998 Foru Arauak, Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoak (zati batean azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak aldatuta), Arabako Lurralde Historikoaren sektore publikoa osatzen duten erakundeetako tasa eta prezio publikoen araubide juridikoa ezarri du bere artikuluetan.

Dokumentazio kartografikoaren salmentarekin loturiko prezio publikoak Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 17ko 2/1995 Foru Dekretuak finkatu ditu.

1:150.000 eskalako serieak arrakasta handia du jendearengan, eta Arabako Foru Aldundiak bakarrik egiten du. Hortaz, lehen argitaratutako aleak agortu direnez gero, eguneratu egin da erliebezko kartografiaren 1:150.000 eskalako seriea.

Hirigintza Zerbitzuak aurkeztutako txostena ikusirik,

Horregatik, Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.- Diputatuen Kontseiluaren urtarrilaren 17ko 2/1995 Foru Dekretuan, dokumentazio kartografikoaren salmentarekin loturiko prezio publikoak finkatzen dituenean, 3. artikuluari 8. paragrafoa eranstea, ondoko prezio hau ezartzen duena:

2.8 Arabako Lurralde Historikoko 1:150.000 erliebe mapa: 20 euro

Vitoria-Gasteiz, 2013ko abuztuaren 1a.– Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua, MARTA RUIZ CERRILLO.

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

**4288**

**DECRETO FORAL 28/2013, del Consejo de Diputados de 1 de agosto, que fija el precio público de venta de documentación cartográfica: mapa de relieve 1:150.000, del Territorio Histórico de Álava.**

La Norma Foral 64/1989, de 10 de noviembre, sobre Tasas y Precios Públicos, modificada en parte por la Norma Foral 33/1998 de 23 de noviembre, establece en su articulado la regulación del Régimen Jurídico de las tasas y precios públicos de las entidades que componen el Sector Público del Territorio Histórico de Álava

Los precios públicos relacionados con la venta de documentación cartográfica, están fijados por el Decreto Foral 2/1995, del Consejo de Diputados de 17 de enero.

La serie a escala 1/150.000 tiene mucha aceptación por el público y sólo es generada por la Diputación Foral de Álava. Por tanto, al haberse agotado la publicación anterior, se ha actualizado la serie a escala 1/150.000 de cartografía en relieve.

Visto el informe elevado por el Servicio de Urbanismo,

En su virtud, a propuesta de la Diputada Foral titular del Departamento de Medio Ambiente y Urbanismo, y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy

DISPONGO

Primero.- Añadir al artículo 3 del Decreto Foral 2/1995, del Consejo de Diputados de 17 de enero que fija los precios públicos relacionados con la venta de documentación cartográfica, el párrafo 8, en el que se establece el siguiente precio:

2.8 Mapa de relieve 1:150.000 del Territorio Histórico de Álava: 20 euros

Vitoria-Gasteiz, 1 de agosto de 2013.– La diputada de Medio Ambiente y Urbanismo, MARTA RUIZ CERRILLO.